

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

GuZumek Zumaian erraztasunez salerosi nahi duten merkatarari zein kontsumitzaileei mesede egiteko helburua duenez, gure bezero potentzialak Zumaiarrak izango dira; bertako enpresekiko eta merkatariekiko sentsibilizazio gehigarri bat dutela suposatzen delako. Dena den, interneten mugitzeko eta online erosteko gutxieneko ezagutzak dituzten pertsonengana iristen saiatuko gara 18-65 urte bitartekoak batipat- jatorria kontuan izan gabe. Honez gain, pandemia egoera dela-eta erosketak egiteari beldurra diotenengana bereziki gerturatu gaituzke egoera horretara itzuliz gero.

Gure online dendan erosketak egin ahal izateko *GuZumen* plataformara sartu beharko dira bezero potentzialak eta, guk zerbitzu hori eskaini ahal izateko, tresna hauek izan beharko dituzte:

1. Lehenik eta behin, internetera konektatzeko aukera.
2. Sarean mugitu eta erosketak burutzeko gutxieneko ezagutzak.
3. Erosketak etxetik egiteko nahia. Erosketak dendan bertan egin nahi dituztenek aldi-aldi gure zerbitzua erabili dezaketen arren ez dira gure bezero potentzialak izango eta jarrera positiboa iruditzen zaigunez bere horretan utziko ditugu.

Bestalde, Zumaiaiko biztanleriaren datuak biltzeko Euskal Estatistika Erakundeko (Eustat) informazioaz baliatu gara. 2020. urteko erroldaren arabera, Zumaian 10.111 pertsona bizi dira eta haietatik 18-65 urte bitarte diren gizon-emakumeen ehunekoa %58,94 da. Zumaiaiko biztanleriaren urteko batzbesteko errenta 20.110 eurokoa izanik, esan dezakegu ekonomikoki gai izango direla gure online dendaren parte izateko.

Euskal AEko biztanleria per lurralde eremua, unitatea, adin beteko talde handiak, sexua eta aldia	
Zumaia	2020
20-65 urte bitartekoak	5.959 pertsona gutxi gorabehera
Ehunekoa	%58,94

Gauzak horrela, gure bezero potentziala Zumaiako populazioaren erdia baino gehiago dela eta erosteko ahalmena izango dutela ondorioztatu dezakegu; baina honetaz gain, kontuan hartu behar dugu erosteko gai ez direnentzat ere erosketak egin ditzakela segmentu honek. Bestalde, kontuan izan behar dugu ez dizkiogula ateak ixten beste herri batzuetako bezeroei; online denda Zumaiako produktuak erosi nahi dituzten pertsona guztientzat irekita baitago, erosketak egiten diren kokapena alde batera utziz. Zentzu honetan, eta banaketan zailtasunak izango ez genituzkela kontuan hartuta, zerbitzu hau bereziki interesgarria izan daiteke inguruko herri eta auzoetako biztanleentzat: Arroa, Iraeta, Zestoa, Itziar, Aizarnazabal, Getaria, e.a.